

Martutene

151 etxebizitza eraikiko dira Etxarrienen

Martuteneko Etxarriene auzoan 151 etxebizitza eraikiko dira. Horietatik 60 babes ofizialekoak izango dira eta gainerako 91, salmenta librekoak. Lanak urte bukaerarako hasiko direla aurreikusi da.

Amaia Etxeberria (lfnoa.: 943 210937)


Proiektu guztia onartu eta gero hasiko dira obrak. Konpentsazio Plana onartua dagoen arren, urbanizazio alorreko azken erabakiak hartzeko daude oraindik.

Etxebizitzak Martutenetik Astigarraga bidean, Pilarreko Andre Mariaren auzuneko etxeak igaro eta gero dagoen eskuin aldeko lautadan eraikiko dira.

**Pilarreko
Andre Mariaren
auzunearen
ondoan
eraikiko dira**

NARRIKA
taberna

Narrika 16
Tfnoa.: [943] 427327



151 etxebizitzak Martutenetik Astigarrako bidean, Pilarreko Andre Mariaren auzunearen ondoan, eskuin aldeko lursailetan eraikiko dira.

Gaur egun, zenbait baratza eta txabola daude zelai horretan, eta baita ondoan etxebizitza bat edo beste ere, baina inongo egitura urbanistikorik gabe.

Zortzi eraikin jasoko dira eta beren artean berdegune eta eremu libre asko geratuko da. Lorategiak ere egingo dira eta baita haurrentzako jolaslekuak ere. Egitasmoa auzoaren hirigintza antolamendurako egokia izan daiteke eta hori da proiektu honen helburuetako bat.

Etxarrienerako babes ofi-

zialeko 60 etxebizitzetako kopuru bat lurjabe pribatuen esku geratuko da eta gainerakoak Udalak jarriko ditu salgai. Eraikitze lanak hasi bezain laster, deialdi publikoa egingo da eta izenemateko epea zabalduko da. Hori guztia eta gero, ohiko zozketa egingo da. Babes ofizialeko etxebizitzak (eraikinak "U" itxuran kokatuta daude) Pilarreko Andre Mariaren auzunearen ondoan eraikiko dira. Salmenta libreko etxebizitzak urrutixeko geratuko dira

Azken erabakiak hartzeko

Pixkanaka, 1997an aurkeztu eta onartu zen egitasmoa aurrera doa. Bi urte ez aurrera ez atzera egon ondoren, eraikitze lanak aurtan hasiko direla dirudi, Konpentsazio Plana onartua izan eta gero. Lurrak jabe pribatuen esku daudenez, Konpentsazio Plana atzeratu egin da. Hauxe izaten da egitasmoa bideratzeko tartetik luze eta zailenetariko, ez baita erraza adostasun batera iristea. Orain, Urbanizazio Plana hobestea falta da, eta azken erabaki hauek hartu bezain laster hasiko dira lanak. Obrak, urte bukaeraren martxan jarriko direla adierazi arren, ez litzateke harritzekoa izango atzeratzea.

Odontologia Klinika

Dr. Beobide

Ametzagaña 49
Tfnoa.: (943) 276227

Medikua - Odontologia

HERMES

ARROPA ETA OSAGARRIAK
2. ESKUKO ARROPA
KOMIKIAK, DESKOAK ETA ABAR

Fermin Calbeton 33 • PARTE ZAHARRA
Tfnoa.: 943-420659